


# MONN

Maialen Villamil, Oihane Conde, Nahikari Sáez eta Martina Rodríguez  
Beurko BHI-Batxi 1.D

## GURE IDEIA:

Ikusi dugu generazio berrietan premia bat dagoela, zoritxarrez parrandan asko ateratzen direlako eta asko edaten dutelako.



(Hemen arazoa baieztatzen digun estatistika bat ikus dezakegu)


Edateari uztera edo gutxienez nola doazen kontrolatzera bultzatzen dituen zerbait sortu nahi dugu, gure asmoa eskumuturreko bat sortzea da gazte horiei adierazteko zenbat alkohol duten odolean koma etilikoak gutxitzeko eta kontrolatuagoak egon daitezen.

Ere bai bi sistema sartu nahi ditugu, bat larrialdi mediko bat badaukagu ambulanzia bati deitzen diona eta bigarrena, ordez, edaria jausteko dardarka bat hematen duen sistema bat komaren ertzean edaten jarraitzen baduzu.

## BALIO PROPOSAMENA:

Azetzen dugun beharra koma etilkoak eta, beraz, gazteen heriotzak prebenitzea lortzen duen produktu bat fabrikatzea da. Gure produktua besteengandik bereizten da; izan ere, batez ere ez dagoelako funtzio hori egiten duen beste produkturik. Gure eskumuturrekoak ez du soilik kalkulatzen zenbat alkohola duzun odolean, baizik eta kalanbroak emateko sistema ere badu, gehiegi edaten ari bazara edalontzia erortzeko.

Gure bezeroak prest egongo dira produktu hau ordaintzeko lehenago idatzi dudan arrazoiengatik, eta baita nerabeen guraso asko etsita daudelako eta ez dakitelako beren seme-alabekin zer egin hainbeste edaten badute, eta produktu hori erosten badute, bake handiagoa emango diegu.



Bestalde, MMON eskumuturrekoak diseinu akatsik gabea du, arropa mota guztiekin bat datorrena, eta ez dirudi objektu bitxi eta itsusia denik. Bestalde, lehen eskumuturrekoaren erosketa askoz merkeagoa izango da jendeari ezagutzera emateko.



## MERKATUAREN-SEGMENTAZIOA:

Idatzi dudan bezala, gure erosleak etxeko gazteenak izango dira, hauek festan ateratzeko eta edateko ohitura dutelako eta behar ahu azetzeko beharra ikusi dugu. Horregatik gure enpresa gazteetan oinarrituko da baina ere bai beraien gurasoetan zeren eta agian lasaiago geratzen dira beraien umeak eskumuturra eramaten badute eta etxera ahilegatzean korroboratu ahal dute zenbat edan duten. Merkatu-dibertsifikatua izango da zeren eta izan ere, egin edo sortu gabeko merkatu-segmentuak azetzen duelako.



## FUNTSEZKO BAZKIDIAK/SOZIETAZIOA:

Bazkideak:

- Zer lortzen dute bazkideak?  
Bazkide akziodunak --- Dibidenduak jasotzeko eskubidea.
- Zer lortzen dugu bazkideengandik?  
Enpresa sortzen hastean, bazkideek dirua ematen dute CEOek enpresa aurrera eramateko. Aurrerago, bazkideek irabaziak jasotzen dituzte

Hornitzaile:

- Ordez daitekeen hornitzaileak: packhelp
- Hornitzaile ordezkaezinak: eurotronix, foxconn

### Sarrera-iturriak:

- Ordainketa bakarreko diru-sarrerak → eskumuturrekoa erosi
- Behin baino gehiagotan ordaintzeagatik izandako diru-sarrerak → zerbitzu edo produktu bat → eskumuturreko seguru bat edo eskumuturrekoa pertsonalizatu (eguneratzeak lehenbizi mmon premiun ordaintzen dutenek lortzen dituzte).

### Kanalak:

- Email akontu bat → bezeroak nahi badute gurekin kontaktuan jarri
- Sare sozialak → marketina
- Publizitate-kartelak

### DIRU-SARRERA:


- Gure enpresak zuzenean saltzen du azken bezeroari.
- Ordainketa bakarreko diru-sarrerak → eskumuturrekoa erosi
- Beste sarrera iturri bat MMON premium → behin baino gehiago (urtean edo hilean behin, bezeroak erabakiko du hori.)
- **MMON premium:** Premium eskumuturrekoak erabilera eskusibokoak dira, eta garestiagoak izan arren, abantaila gehiago dituztenak.
  - Diseinu eskusiboak
  - Eguneratzeak jasotzen lehenak izatea

### BANAKETA- eta KOMUNIKAZIO- KANALAK:

- Bezeroarekin komunikatzeko gida nagusiak:
  - email akontu bat ([mmonenpresa@mmon.com](mailto:mmonenpresa@mmon.com))
  - sare sozialak (instagram, tiktok, eta abar)
  - publizitate kartelak - billboard
- Eskumuturrekoa banatzeko gida nagusiak
  - Packlink (25euros hilero)

## FUNTSEZKO-JARDUERAK:

**Gure negozio-eredua funtziona dezan, funtzesko jarduerak erabiliko ditugu. Gure enpresako jarduera garrantzitsuena sareko jarduerak izango dira, guretzako oso garrantzitsua delako bezeroei produktu erakargarri eta berri bat aurkeztea, eta sare sozialen bidez eta gure webgunearen bidez egingo dugu batez ere iragarkiak eta publizitatea, baita ere gazteak erabiltzen duten saretan horrela gure produktua ospetsua bihurtuko da.**



### **(Gure web gunea)**

**Beste alde batetik, ekoizpena baita ere izango da garrantzitsua zeren eta guk eskaintzen dugun produktua eksklusiboa da eta diseinu berritzu bat dauka.**

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

**Lehen esan dugun bezala, gure produktua saltzeko zerbitzu automatizatua eta komunitateak konbinatuko ditugu webgune bat sortuz. Horrekin gure bezeroek denda batera joan beharrik izan gabe erosi ahal izan dezaten.**

**Komunitateekin gure produktuari buruzko iritzia eman ahal izango dute eta beren esperientzia pertsonalak komentatu. Gure bezeroen zalantzak argitzeko laguntza pertsonala ere sartuko dugu, erosketarekin ahalik eta pozik egon daitezten.**



## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

**Baliabide fisikoak: Fabrikazio instalazioak beharko ditugu gure produktua ekoizteko. Ere beharko dugu ordenagailu bat, harremanetarako zenbaki bat eta fabrika bateko kontratua.**



**Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Web diseinua, web-a behar bezala kudeatzeko informatika ezagutzak, trebetasun komertzialak eskumuturreko gehiago saltzeko.**



**Finantza-baliabideak: Inbertitzaileen laguntzaz gure negozioa aurrera eramaten saiatuko gara, eta behar badugu, gure aurrezkiez baliatuko gara.**




## KOSTUEN EGITURA

**Aurrera eramateko enpresa kostu batzuk ordaindu behar ditugu.**

### KOSTU FINKOAK:

- Local bat izango dugu eta alokairua ordaindu behar dugu – 375€
- Localerako materialan, ordenagailuetan, altzarietan... – 2000€ inbertituko dugu.
- Gure soldata, lortzen dugun eskumuturren kopurua saltzearen araberakoa izango da.
- Ere eukiko dugu localaren segurua, hau 170€ izango dira urtean behin.



### KOSTU ALDAKORRAK

- Produktua ekoizten duen fabrika bat ordainduko dugu produktuen materialarekin akorde dagoena, hau da, fabrika ordainduko dugu materiala ordaintzen. Erabiliko dugu: titanio, altzairu herdoilgaitz, zeramika eta aluminioa: Plakaren totala 1.129,71€ azkenez, eskumuturrekoaren uhala bezeroaren gusturan izango da: Fluoroelastómero titaniorekin, poliesterra titanioarekin, nailon titanioarekin edo Fluoroelastómero altzairu herdoilgaitzarekin, zeramika edo titanio - Para la correa de la pulsera invertiremos en total: 247,00€.

Fabrikari 1376,71€ ordainduko diogu.

- Correos express izango da gure garraio enpresa eta ordainduko dugu bezeroei bidalketaren gastuak kobratuz. 5€ ordaindu behar izango dute bezeroek, garraio enpresa ordaintzeko.
- Lokaleko ura eta argia ere ordaindu behar dugu.
- Produktua bidaltzeko bilgailua erosi behar dugu, kaxak edo halako antzekoa, 50€ inbertituko dugu produktuaren bilgailuan.




★ **Lortu dugu inguralde 2.000 € ematea laguntza bezala.**

### ZABALKUNDE EKONOMIKOA

Lehenik eta behin, eskumuturreko batzuk oparituko ditugu, jendeak proba eta gomendioa egin ditzan, produktu birala egiteko.

Produktua 38€-tan salduko dugu momentuz, agian, etorkizunean prezioa igo dezake.



## **AGURRA**

Honekin amaitu dugu gure produktua aurkezten espero dugu gure ideia aurrera eramatea eta nerabeen edo behar duten pertsonen bizitza hobetzea eta luzatzea aldi berean kezka kentzen, hau egin dugu nerabeen arriskuan daudela gai honekin ikustean eta eta nerabe alkoholikoen tasa hain altu horiek aldatzeko asmoz. Gurasoak bere semea ikustean ere festeetara joaten eskumutur honekin, kezka kendu ahal dezakete, badakitelako ondo egongo zarela eta nolabait babestuta ere.